

ZERBITZUEN INKESTA. JARDUERA PROFESIONALAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK. 2020

Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektoreko negozio-zifra 8.641 milioikoa izan zen 2020an, 2019an baino % 13,6 txikiagoa

Mikroenpresak (10 enplegu baino gutxiago) dira COVID-19 pandemiak gehien kaltetu dituenak: establezimenduak itxi ziren (–% 1,4), enplegua galdu zuten (–% 1,7) eta salmentak nabarmen murriztu ziren (–% 18,4)


Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektoreko establezimenduen negozio-zifra, 2020an, 8.641 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 13,6 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Urte horretan hasi zen COVID-19 pandemia, eta jarduera ekonomikoari neurri murriztaileenak aplikatu zitzaizkion.

Establezimenduen kopurua pixka bat jaitsi zen, % 1,2, guztira 27.606 izatera heldu arte, eta enplegatuen kopurua % 0,5, 130.910 pertsona okupatuz, 2020. urterako euskal ekonomiaren enplegu osoaren % 13,6.

Negozio-zifraren beherakada handia gorabehera, Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen establezimenduek sortutako balio erantsia 5.620 milioi eurora iritsi zen, eta jaitsiera % 4,4ra mugatu zen.

Jarduera profesionalen eta servitzu lagungarrien sektorearen langileen banaketa jarduera azpisektorearen arabera. 2020


Ehunekoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Jarduera profesionalen eta servitzu lagungarrien sektorearen negozio zifraren jarduera azpisektorearen arabera. 2020

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Atalen analisia

Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektorea bi atalek osatzen dute: **Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoenak** eta **Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrienak**.

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen atalak 21.571 establezimendu ditu, eta establezimendu kopuruari dagokionez nagusi da, guztizkoaren % 78,8 baitu. Negozio-zifrari dagokionez ere nagusi da, fakturatutako 5.960 milioi euroak sektorearen % 69 baitira. Ez, ordea enpleguari dagokionez, izan ere, 63.771 pertsona enplegatuek sektorearen erdia baino zertxobait gutxiago osatzen dute, guztizkoaren % 48,7.

Atal honen balio erantsi gordinak nabarmen gainditu zituen 3.777 milioi euroak, eta 2019an lortutakoa % 0,5 hobetzea ere lortu zuen.

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen sekzioaren negozio-zifrak behera egin du (% 9,1 gutxiago) eta establezimendu kopuruak ere bai (% 0,9 gutxiago), 2020an enplegua % 2,7 igo den arren 2019ko datuekin alderatuta.

Administrazio-jardueren eta zerbitzu osagarrien atalak, berriz, 2.682 milioi euroko fakturazio globala du, eta Jarduera Profesional eta Zerbitzu Osagarri guztien negozio-zifraren % 31 da; bertako 67.139 enpleguak enpleguaren guztizkoaren % 51,3 dira, eta 5.855 establezimenduak jarduera-sektore horretako establezimendu guztien % 21,2 dira.

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoekin gertatu ez bezala, Administrazio-jardueren eta zerbitzu osagarrien kasuan, balio erantsi gordinak, 1.842 milioi eurotik gorakoa izan zenak, murrizketa esanguratsua izan zuen 2020an (-% 13,2) 2019arekin alderatuta.

Administrazio-jardueren eta zerbitzu osagarrien atalean establezimenduen kopurua % 2,1, enplegua % 3,3 eta fakturazioa % 22,1 murriztu dira.

Dibisioen analisia

Emaitzak jarduera-maila bereiziagoan aztertuz, eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoaren atalaren barruan, beren garrantziagatik nabarmentzen dira **Jarduera Juridikoetako eta Kontabilitateko eta Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzueta**ko dibisioak. Lehenak 2.860 milioi euroko fakturazioa izan zuen, dibisioaren % 48, eta bigarrenak 1.943 milioi eurokoa, dibisioaren % 32,6. Bien artean negozio-zifra osoaren % 80,6 metatu zuten, establezimendu guztien % 75,1 eta enpleguaren % 70,7.

2020an, Jarduera Juridikoetako eta Kontabilitateko dibisioak 26.769 pertsonari ematen die lana 10.763 establezimendutan, eta Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzueta 5.569 establezimenduetan 18.323 pertsona ari dira lanean. 2019aren aldean, bietan negozio-zifrak murriztu egin ziren, % 3,6 gutxiago Jarduera Juridikoak eta Kontabilitatekoak, eta % 14,5 arte Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzuak. Establezimendu kopuruari dagokionez, lehenengoak % 0,3 gehitu dira eta bigarrenak % 2,1 murriztu. Enpleguari dagokionez, Jarduera Juridikoetako eta Kontabilitateko dibisioan % 6 handitu zen eta Arkitektura eta Ingeniaritza Zerbitzuetan % 1,5.

Gainerako hiru dibisioei dagokienez, **Ikerketa eta Garapenekoak** portaera negatiboa izan du fakturazioan, % 9,9 murriztu baita 2019arekin alderatuta. Antzeko murrizketa (–% 9,3) izan du **Beste Jarduera Profesional Batzuek** (besteak beste, Diseinua, Argazkigintza, Itzulpengintza eta Interpretazioa eta Albaitaritza barne hartzen ditu), eta **Publizitatea eta Merkatu Azterketak** dibisioaren fakturazioa, berriz, % 18,5 murriztu da.

Hala ere, Ikerketa eta Garapeneko jardueretarako enpleguaren bilakaera positiboa da; izan ere, 2019an baino % 3,8 gehiago dago, nahiz eta antzeko neurrian (–% 3,9) murriztu den establezimendu kopurua. Beste Jarduera Profesional Batzuek dibisioan enplegua murriztu da, % 3,1, eta establezimenduen kopurua % 2,4 jaitsi da. Gauza bera gertatzen da Publizitatea eta Merkatu Azterketak adarrarekin; izan ere, bilakaerak zifra negatiboak ditu bai establezimendu kopuruan (% 0,3 gutxiago), bai landunetan (enpleguaren % 4,2 murriztu da).

Aldagai nagusiak jarduera-taldearen arabera. Mila eurotan. 2020. 2020

	Establezimenduak			Landun-kopurua			Negozio-zifren zenbatekoa		
	Balioa	osoaren %	Aldearen 2019-2020 (%)	Balioa	osoaren %	Aldearen 2019-2020 (%)	Balioa	osoaren %	Aldearen 2019-2020 (%)
Jarduera profesionalak eta zerbitzu lagungarriak	27.606	100,0	-1,2	130.910	100,0	-0,5	8.641.456	100,0	-13,6
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.751	78,8	-0,9	63.771	48,7	2,7	5.959.913	69,0	-9,1
- Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	10.763	39,0	0,3	26.769	20,4	6,0	2.859.596	33,1	-3,6
- Arkitektura- eta ingeniaritza-zerbitzuak	5.569	20,2	-2,1	18.323	14,0	1,5	1.942.937	22,5	-14,5
Ikerketa eta garapena	415	1,5	-3,9	8.115	6,2	3,8	451.733	5,2	-9,9
Publizitatea eta merkatu azterlanak	1.342	4,9	-0,3	3.813	2,9	-4,2	307.497	3,6	-18,5
Beste jarduera profesional	3.662	13,3	-2,4	6.751	5,2	-3,1	398.150	4,6	-9,3
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	5.855	21,2	-2,1	67.139	51,3	-3,3	2.681.543	31,0	-22,1
Alokairu jarduerak	606	2,2	-2,6	2.546	1,9	-0,5	385.964	4,5	-15,5
- Actividades relacionadas con el empleo	208	0,8	-3,3	10.431	8,0	-14,5	265.164	3,1	-22,7
Bidaia-agentziak	726	2,6	-6,9	1.889	1,4	-13,9	210.264	2,4	-69,5
Bestelako zerbitzu-jarduerak	4.315	15,6	-1,1	52.273	39,9	-0,4	1.820.151	21,1	-6,9

Data 2022ko Uztailaren 18a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen Inkesta

Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak atalaren barruan, guztizkoan duten partaidetzagatik, **Beste Zerbitzu Jarduera batzuek** dibisioa nabarmentzen da —Segurtasun eta Ikerketa Jarduerak, Eraikin eta Lorezaintza Zerbitzuek eta Enpresentzako Laguntza Jarduerak osatzen dute—. Sektore horretako enpleguaren eta establezimendu guztien hiru laurdenak ordezkatzen ditu (% 77,9 eta % 73,7, hurrenez hurren). 2020an bilakaera negatiboa izan du, bai landunei dagokionez (–% 0,4), bai establezimendu kopuruari dagokionez (–% 1,1), bai fakturazioari dagokionez (–% 6,9).

Beste Zerbitzu Jarduera batzuek alde batera utzita, beste dibisioek partaidetza txikia dute beren atalaren barruan. Horrela, establezimenduen % 12,4 eta enpleguaren % 2,8 **Bidaia Agentziei** dagokie, establezimenduen % 10,4 eta enpleguaren % 3,8 **Alokairu Jarduerari**, eta establezimenduen eta enpleguaren % 3,6 eta % 15,5 **Enpleguarekin lotutako jarduerari**.

Hirurek izan dituzte jaitsierak, bai establezimendu kopuruan, bai fakturazioan eta enpleguan. Bereziki aipagarria da fakturazioaren jaitsiera Bidaia Agentzietan (% 69,5), enplegua % 13,9 eta establezimendu kopurua % 6,9 murriztu baitira. Bestalde, Alokairu Jardueretan fakturazioa % 15,5 jaitsi da, enplegua ia % 0,5 eta establezimenduak % 2,6. Enpleguarekin lotutako jarduerak ere beherakada nabarmena izan dute diru-sarreretan (–% 22,7) eta landunetan (–% 14,5), baina establezimendu kopurua zertxobait gutxiago jaitsi da (–% 3,3).

Lurraldeen arabera *analisia*

Gipuzkoan enpleguak gora egin du (% 2,1), baina zertxobait jaitsi da Araban (–% 0,8) eta modu neurritsuan Bizkaian (–% 1,6)

Lurraldeen arteko banaketari dagokionez, eta establezimendu kopurua kontuan hartuta, Euskal AEko guztizkoaren % 53,1 Bizkaian dago, % 33,5 Gipuzkoan eta % 13,4 Araban, eta aldeak kontuan hartzekoak dira jardueraren arabera. Esate baterako, Jarduera Juridikoak eta Kontabilitatekoak % 58,3ra iritsi dira Bizkaian, Gipuzkoan Ikerketa eta garapenari dagozkionak % 44,6 dira, eta Araban Enpleguarekin lotutako jarduerak % 18,8ra, lurralde bakoitzeko jarduera adierazgarrienak aipatzearen.

Enplegua aztertzen bada, lurraldeen arabera banaketak Bizkaiari esleitzen dio 2020an gure erkidegoko guztizkoaren % 57,8, Gipuzkoari % 28,8 eta Arabari % 13,4. Kasu horretan, konparazio bat eginez, jarduera esanguratsuenak honako hauek dira lurraldearen arabera: Bizkaian Beste Zerbitzu Jarduera batzuk (% 62,2), eta, berriz ere, bi lurraldeetan, Ikerketa eta Garapena Gipuzkoan (% 48,1) eta Enpleguarekin lotutako jarduerak Araban (% 22,2).

Lurraldeka, aztertutako adierazle nagusietan, hiru lurraldeek bilakaera negatiboa izan zuten 2020an.

2019arekin alderatuta, Bizkaiak % 15,2ko murrizketa izan du bere negozio-zifran, eta % 14,8koa Arabak eta Gipuzkoak.

Jaitsiera hori establezimendu kopuruaren eta enpleguaren bilakaeraren kasuan moteldu egin da. Lehenengoari dagokionez, Gipuzkoan % 1 murriztu da, eta Araban eta Bizkaian % 1,3. Enpleguari dagokionez, Araban eta Bizkaian % 0,8 eta % 1,6 murriztu da, hurrenez hurren, baina Gipuzkoan % 2,1 handitu da.

Aldagai nagusiak lurralde historikoaren arabera. Mila eurotan. 2020

	Euskal AE	gehikuntza (%)	Araba/Álava	gehikuntza (%)	Bizkaia	gehikuntza (%)	Gipuzkoa	gehikuntza (%)
Establezimenduak NU	27.606	-1,2	3.686	-1,3	14.669	-1,3	9.251	-1,0
Landunkopurua NU	130.910	-0,5	17.529	-0,8	75.731	-1,6	37.650	2,1
Negoio kopurua	8.641.456	-13,6	1.020.617	-14,8	5.296.047	-15,2	2.324.792	-9,0
Hornidurak	1.836.208	-24,2	197.922	-18,1	1.166.174	-27,7	472.112	-16,7
Pertsonal gastuak	3.993.378	-3,4	500.032	-7,4	2.341.983	-3,6	1.151.363	-1,3

Data 2022ko Uztailaren 18a


Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Pertsonal-gastuek egokitu egin dituzte aipatutako murrizketak Araban eta Bizkaian, % 7,4ko eta % 3,6ko jaitsierekin; Gipuzkoak, modu neurritsuagoan bada ere, % 1,3ko jaitsiera izan du pertsonal-gastuetan.

Enplegu-mailaren araberako analisia

Establezimenduen tamainaren zehaztasunaren azterketak, enpleguaren arabera, informazio gehigarria ematen du.

Lehenik eta behin, mikroenpresek, hau da, 10 enplegu baino gutxiagoko establezimenduek establezimendu guztien % 93,5 hartzen dute, langile guztien % 32,1i ematen diote enplegua eta sektorearen fakturazioaren % 37,6 sortzen dute.



Enpresa txikiek, 10-49 enplegukoek, establezimenduen % 5,1 hartzen dute, baina sektorearen % 21,8ri ematen diote enplegua, eta 2020an Jarduera profesional eta zerbitzu osagarri guztien % 28 fakturatu zuten. Azkenik, 50 enplegu baino gehiagoko enpresek establezimenduen % 1,4 baino ez zuten, langile guztien % 46,1 enplegatzen zuten eta guztizko bolumenaren % 34,4 fakturatu zuten.

2019tik 2020ra bitarteko bilakaera desberdina da mikroenpresentzat eta pandemiak beren negozio-zifran soilik —baina ez enpleguan eta establezimenduen bolumenean— eragin negatiboa izan duen gainerako enpresentzat. Izan ere, mikroenpresen enplegua (% 1,7 gutxiago), establezimendu kopurua (–% 1,4) eta fakturazioa (% 18,4 gutxiago) murriztu dira. Aldiz, enpresa txikiek % 1,3ko hazkundera izan dute, eta enpleguan % 1,8koa establezimendu guztietan, baina haien negozio-zifra % 16 jaitsi da. Azkenik, tamaina handiagoko enpresen kasuan, establezimenduen kopurua % 2,6 handitu da, enplegua pixka bat jaitsi da (% 0,5) eta fakturazioa neurritsu jaitsi da (% 5,1).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62